

TENISA

Sei urteren buruan

LABURREAN

BALITEKE Pippenek Orlando Magicen jokatzeko denboraldian

Baliteke NBAko Chicago Bulls taldeko Scottie Pippen jokalaria datorren denboraldian Orlando Magic taldean jokatzeko, zenbait telebista katek adierazi duten arabera. Bulls taldearekin denboraldiko azken partidua jokatu ondoren, partidu hori talde horretan jokatzeko zuzenaz azken zitekeela adierazi zuen Pippenek. Telebista kateen arabera, Magic taldeko Donald Royal Chicago Bulls taldera joan liteke eta Pippen Orlandora.

RUGBYko historiako lesiorik larriena izan du Britok

Bizkarrezurra apurtu zuen Bolikostako Max Brito rugby jokalaria Munduko Rugby Kopan Tongaren aurka jokatu duen partiduan. Horren ondorioz, Brito tetraplegiko geratu da bizi guztirako. Craig Jamieson txapelketako zuzendariak adierazi duenez, Britoren lesioa orain arte rugby jokari batek izan duen lesiorik larriena izan da, «tragedia bat» bere hitzetan. Asteartean ebakuntza egin zioten bizkarrezurra estabilizatzeko.

RAMAZONOVAK errekor berria jarri du 10 km. martxan

Ramazonova atleta errusiarrak munduko errekor berria jarri zuen atzo errepidean egindako ibilketako 10 kilometroko proban. Ramazonovak 41.29ko denbora egin zuen eta segundu bakarrean hobetu zuen lehengo errekorra. Kerry Saxhy australiarrak zuen errekorra, 41.30ekoa.

MANOLEK ez du denboraldi honetan jokatu

Realeko Imanol jokariarentzat amaitu da aurtengo denboraldia. Asteazkeneko entrenamenduan lesionatu egin zuen eta atzo egindako ekografiak erakutsi zuen fibra haustura daukala eskuin hankako koadrizepsean. Ondorioz, ez du jokatzeko izango geratzen diren Ligako bi partiduetan.

Arantxa Sanchez Vicariok eta Steffi Grafek jokatu dute Roland Garrosekoko finala


Azken bi edizioetako Airabazleek jokatu dute aurtengo Roland Garros tenis txapelketako finala. Arantxa Sanchez Vicariok eta Steffi Grafek beren etsaiak menderatu zituzten Parisen eta orain dela sei urte jokatu duen final bera errepikatuko dute bihar atzera Frantziako txapelketan. Orduko hartan tenislari espainiarrak erdietsi zuen finala.

PARIS

Sanchez Vicariok eta Grafek aurrez espero baino zailtasun eta arazo gehiago izan zituzten atzo jokatu duen finalerdietan. Espainiarrak 7-5 eta 6-3 irabazi zion Kimiko Date japoniarrari baina honek galtzak bete lan eman zizkion partidua osoan, batez ere aurreneko setean. Alemaniarrak, berriz, hiru set behar izan zituzten Conchita Martinez espainiarra finalerdi kanpo uzteko: 6-3, 7-6, 6-3. Graf makina baten pare hasi zen partidua jokatzeko baina Martinezek neurria hartu zion eta ustekabe galanta emateko zorian egon zen.

Arantxa Sanchez Vicariok gogotik borrokatu behar izan zuen Dateren joko erasokorra gainetik nola-hala kendu ahal izateko. Japoniarrak txapelketa kuriosoa egin eta aurrerantzean zeresanik eman dezakeela erakutsi du.

Espainiarrak korrika ugari



Kimiko Date japoniarra atzo jokatu duen partiduan.

REUTER

egin zuen finalerdi osoan, alde batera eta bestera, Datek ertzetatara bidalitako pilota zitalak bueltatzen. Gainera, azken honek 2-0ko abantaila hartu zuen set bakoitzaren hasieran. Sanchez Vicariok, ordea, ohizko segurtasuna erakutsi zuen pistaren atzealdetik eta kolpe-kolpe japoniarraren pare jarri eta buelta eman zion partiduari. Dateren

joko erasokorra oso gustagarri gertatu zen.

GRAFEN NAHIKOA KOSTATA

Aurrean Steffi Graf izango du. Tenislari alemanak 42 partidua jokatu ditu aurtengo guztira eta horietatik 37 irabazi. Atzo ere makina baten antzera aritu zen Roland Garrosko pista nagusiaren gainean, baina oso etsai bihurria

Gizonezkoen bi finalerdi jokatu dira gaur

PARIS

Gizonezkoen beste bi finalerdiak jokatu dira gaur. Sergi Bruguerak Michael Changen aurka jokatu du horietako batean eta Thomas Musterrek Eugeny Kafelnikovaren aurka bestean. Egun lurreko pistetan dauden tenislari onenetakoak dira laurak.

Sergi Bruguerak eta Michael Changek orain arte elkarren aurka jokatu duten hiru partiduetatik bi Changek irabazi ditu. Baina bi tenislari hauek orain arte ez dute sekula jokatu elkarren aurka lurreko pistetan. Orain arte euren arteko partidua belarrezko eta porlanezko pistetan izan dira. Chang estatubatuarra denboraldi ona egiten ari da aurtengoan, Hong Kongeko eta Atlantako torneoak irabazi baititu. 1989an Roland Garrosen lortu zuen garaipena errepikatu nahi du aurtengoan.

Sergi Bruguerak ez du tor-

neurik irabazi aurtengoan. Denboraldi hasieran lesionatuta egon zen eta horrela orain arte ez du bere sasoirik onenean jokatu izan. Gaurko partidua patxadaz hartu du katalanak. Changi buruz haxe adierazi du: «Chang oso indartsua da buruz, korrika asko egiten du eta oso zaila izango da gainditzea». Bere buruari buruz hitz egitean, berriz, hala mintzatu da: «Ni sasoi onean nago eta gogo handiz». Horrez gain, badirudi Roland Garrosekoko ikusleek berriro ere begiko tenislaria dutela, Larssonen aurka jokatu zuen partiduan epailearekin izan zuen polemikak ikusleak bere kontra jarri bazituen ere.

Thomas Muster eta Eugeny Kafelnikovek jokatu dute bigarren finalerdi. Bi tenislari hauek bi aldiz jokatu dute orain arte elkarren aurka, biak lurreko pistetan eta bakoitzak garaipen bana lortu du. Hala ere, partidua favorito garbia dauka: Thomas



Michael Chang.

AP

Muster. Austriarra oso denboraldi ona egiten ari da. Mexiko, Estoril, Bartzelona, Montecarlo eta Erromako torneoak irabazi ditu eta 33 partidua daramatza lur gai-

nean galdu gabe.

Musterrek eta entrenatzaile duen Romie Leitgehek ondo prestatu dute Roland Garrosekoko torneoak. Entrenatzaileak debekatu egin dio Musterrari familia eta andreagaia aldamenen izatea torneoak irauten duen bitartean. «Tenisaz bakarrik arduratu behar du» adierazi du Leitgeh entrenatzaileak. Zinemak betetzen du bere aisialdia.

Kafelnikovek ilusio handiz hartu du gaurko norgehiagoka. Haxe da Grand Slameko torneo batean lortu duen gauzarik handiena, «ezin nezakeen ezer hobirik amestu» adierazi du. Aurtengo Milan eta San Petersburgoko torneoak irabazi ditu eta Errusia Davis Kopako finalerdietara sailkatu duen taldeko partaidea izan da. Horrek guztiak ezaguna bihurtu du Errusia eta berak dioenez, Errusiara garaipen handi bat eramatea baino ez du buruan.